



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

PRENTSA OHARRA

Legebiltzarrak omenaldia eskaini die
terrorismoak eraildako eta mehatxatutako zinegotziei

Legebiltzarburuak nabarmendu du biktimen senideen eskuzabaltasuna, ausardia eta baretasuna

Quirogak: "Erailak izan direlarik gaur egun gure artean ez daudenen ausardiari esker, eta mahatxua sentitu arren aurrera jarraitzen dutenen ausardiari esker, horiei esker Euskal Herria pixkat hurbilago dago askatasunetik"

"Udal-hautetsiek ideal demokratikoaren adierazpide ahalik gorena dira, herritarrengandik ahalik hurbilen daudelako"

"Oso gogorra izatera iritsi daiteke Euskadiko zinegotzi eta alkate askoren bizitza, eta batzuetan ezin eramaneraino bakartia"

"Adostasuna lortu dugu indar politiko guztien artean terrorismoaren basakeriaren gainean, eta horrek hurbilago hartzen gaitu indarkeriaren azkenetik"

Legebiltzarburuak baloratu du jada ez dela ametitzen biktimei itsuskeria publikorik egitea, ez eta propaganda eta apologia terrorista jendaurrean agertzea

Hala ere, ohartarazi du borroka ez dela irabaziko pertsona bat bera ere Euskadin beldurrarekin bizi den bitartean

"Ez da aski terrorismoaren kondena erlatiboak egitea, zilegitasun demokratikoa irabaztearren. Beharrezkoa da gaitzestea indarkeria mobilizazio politikorako bitarteko gisa erabiltzea, bizkar ematea heriotza tresna gisa erabiltzeari, uko egitea beldurra erreminta gisa erabiltzeari"





Eusko Legebiltzarrak omenaldia eskaini die terrorismoak eraildako udal-hautetsiei eta mehatxatuta eta hertsatuta lanean jarraitzen duten udal-hautetsiei. Ekitaldian Arantza Quiroga legebiltzarburuak azpimarratu du ezen Euskal Herria gaur egun askatasunetik pixkat hurbilago bizi baldin bada dela, hain zuzen, gaur egun hemen ezin egon diren horiei esker, erailak izan baitira zinegotzi izateagatik.

"Zeren eta udal-hautetsiak baitira ideal demokratikoaren adierazpen ahalik gorena, herritarrengatik ahalik hurbilen daudelako, herritar horien beharrianak ezagutzen dituztelako, egunero haien artean dabiltzalako eta haien inguruneko parte bizi direlako. Zoritxarrez, kaleko bizitzatik hurbil izateak bereziki zaugarri bihurtzen ditu erradikalismo itsuaren eguneroko hertsapenetik, propaganda eta apologia terroristaren etengabeko beldurraztetik".

"Gaur aitzakiarik gabe ohoratu nahi ditugu desagertutako zinegotziak eta goraiatu nahi dugu oraindik ahaleginean jarraitzen duten zinegotzien lana ere, guztiei erakusteko beren alde gaudela, erreserbarik gabe azkenean. Jada ez dugu ametitzen biktimekiko itsuskeria publikorik, ezta propaganda eta apologia terroristaren azalpen lotsagaberik ere. Sekula ez dugu onartuko gure herritarrek beren amorrua irentsi behar izatea, beren borrokoen harrokeriaren aurrean indarge. Aurrerantzean ere funtsezko diferentziak izango dira gure eskenatoki politikoko aktoreen artean, eta pozten naiz dibertsitate horregatik, baina hemen badakigu badela oinarritzko kontu bat alboraezina: denok gaude indarkeriazko bitartekoen aurka, edozeinen aurka, erabat".

Eusko Legebiltzarreko presidentek azpimarra egin du "indarkeriaren amaierara hurbiltzen gaituen oinarritzko elementu batean: ankerkeria terroristaren arbuioari buruzko adostasuna, bizitzarekiko eta askatasunarekiko gure konpromisoari buruzko adostasuna".

"Eta gogora ekarri behar" –nabarmendu du Quirogak– "ez dela nahikoa terrorismoaren kondena erlatiboak egitea zilegitasun demokratikoa lortze aldera. Hori baino askoz gehiago behar da. Behar da gaitzestea indarkeria mobilizazio politikorako bitarteko gisa indarkeria erabiltzea edozein egoeratan, gaitzestea iraganean, orainean eta geroan; behar da uko egitea heriotza tresna gisa erabiltzeari, bizkar ematea beldurra erreminta gisa erabiltzeari. Euskal espazio demokratikoan lekua eduki ahal izateko, beharrezkoa da gure historian galdu diren bizitza errugabe guztien memoria ohoratzea".

Eusko Legebiltzarreko buruak nahi izan du, orobat, oraindik askatasun falta sufritzen duten horien guztiengandik hurbil sentitu, "egunero bizkaitzainez inguratuta bizi beharra baitaukate, orduoro beren bizitza arriskutzen baitute. Baina prezio hori ordaintzea erabaki dute Euskadi leku hobeto bat bihurtze aldera". Eta begirunea





erakutsi die, halaber, segurtasun-aparatuz ingurututa bizi beharrik ez daukaten baina etengabe sektore erradikalen irainak eta itsuskeriak sufritzen dituztenei.

Arantza Quirogak goraiatu du biktimak etengabe eta egunero erakusten ari diren jarrera: "Biktimak agertzen dira" –dio– "eskuzabaltasunez, ausardiaz eta baretasunez beterik, eta horrek giza parametro ororen gainetik jartzen ditu. Eskuzabaltasun erabateko horrek biktimen handitasun indibiduala erakusten du. Zuek zarete zutik egonarazten gaituen oinarritzko bultzada".

"Terrorismoari azkena emateko, gizarte zibila gero eta konprometituago dago. Inoiz baino batuago gaude denok, eta hori poztekoa eta ospatzekoa da. Baina ezin dugu pentsatu irabazi dugula pertsona bat bera ere Euskadin beldurarrekin bizi den bitartean, heriotzaren itzala gure artean daukagun bitartean. Lantegi honek, eginkizun honek denon ahalegina, denon konpromisoa eskatzen du. Gure seme-alabek eta ilobek jakin behar dute ezen beren arteko desadostasuna funtsezkoa bada ere badirela muga batzuk ezin iragan daitezkeenak. Hori barneratu egin behar dugu, banan-banan, denok".

Eusko Legebiltzarreko presidentearen ustez, badira une batzuk gizarte zibilak eta politikoez erabateko sintonia lortzen dutenak. "Uste dut gaur une horietako bat izaten ari dela: Legebiltzar hau, omenezko ekitaldia egiterakoan, erantzun egokia ematen ari zaio gure ordezkatuak hautestontzietan utzi zuten aginduari. Horregatik, denok elkarri zorionak eman beharra daukagu, aho batez erabaki dugulako merezitako omenaldi hau egitea hainbeste zor diegun horiei".





NOTA DE PRENSA

En el homenaje rendido por el Parlamento a los ediles
asesinados y amenazados por el terrorismo

Destaca la generosidad, valentía y serenidad de las familias de las víctimas, y de los
amenazados que trabajan día a día

Quiroga: “Gracias a la valentía de quienes hoy no están, por haber sido asesinados, y a quienes siguen, pese a la amenaza, el País Vasco se encuentra un poco más cerca de la libertad”

“Los ediles encarnan la máxima expresión posible del ideal democrático al estar lo más cerca posible de los ciudadanos”

“La vida de muchos concejales y alcaldes de Euskadi puede llegar a ser muy dura, y a veces insoportablemente solitaria”

“El consenso alcanzado entre todas las fuerzas políticas sobre la barbarie del terrorismo nos aproxima al fin de la violencia”

Valora que ya no se tolere ningún desplante público a las víctimas, ni el despliegue de propaganda y apología terrorista

Alerta, no obstante, de que la batalla no estará ganada mientras una sola persona siga viviendo con miedo en Euskadi

“No bastan condenas relativas del terrorismo para ganar legitimidad democrática. Hace falta rechazar la violencia como medio de movilización política, abjurar de la muerte como instrumento y renunciar al miedo como herramienta”





La Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, ha destacado en el homenaje organizado por la Cámara a todos aquellos ediles asesinados por el terrorismo y a los que ejercen su labor bajo la amenaza y la coacción que si el País Vasco se encuentra hoy un poco más cerca de la libertad es justamente gracias a quienes no pueden estar aquí esta mañana al haber sido asesinados por su condición de concejal.


“Porque los ediles encarnan la máxima expresión posible del ideal democrático, porque están lo más cerca posible de los ciudadanos, conocen sus necesidades, caminan a diario entre ellos y son parte viva de su entorno. Lastimosamente, su cercanía a las calles los hace también especialmente vulnerables al acoso diario del radicalismo ciego, a la constante intimidación de la propaganda y la apología terrorista.”

“Hoy honramos sin tapujos la memoria de los ediles desaparecidos y elogiamos la labor de aquellos que siguen, demostrándoles que estamos de su lado, sin reservas, por fin. Ya no toleramos ningún desplante público a las víctimas, ni el despliegue descarado de propaganda y apología terrorista. Nunca más permitiremos que nuestros ciudadanos tengan que tragar saliva, impotentes ante la ostentación de sus verdugos. Podrán subsistir las más radicales diferencias entre los distintos actores de nuestro escenario político, y celebro esa diversidad. Pero aquí sabemos que hay una cuestión de base insoslayable: todos compartimos un absoluto rechazo por cualquier medio violento.”

La Presidenta de Parlamento Vasco ha hecho especial hincapié en “un elemento básico que nos acerca aún más al fin de la violencia: el consenso sobre el rechazo a la barbarie terrorista, consenso sobre nuestro compromiso con la vida y la libertad.”

“Debemos recordar, subraya Quiroga, que no basta con condenas relativas del terrorismo para ganar legitimidad democrática. Hace falta mucho más que eso. Hace falta rechazar la violencia como medio de movilización política en cualquier circunstancia, rechazarla en el pasado, en el presente y en el futuro; hace falta abjurar de la muerte como instrumento, renunciar al miedo como herramienta. Para tener cabida en el espacio democrático vasco hay que honrar la memoria de todas las vidas inocentes perdidas a lo largo de nuestra historia”.

La Presidenta de la Cámara Vasca también se ha querido sentir próxima a todos aquellos que sufren aún la falta de libertad, “a todos aquellos que día a día deben estar rodeados de escoltas, quienes arriesgan su vida en cada hora. Un precio que han decidido pagar para hacer de Euskadi un lugar mejor”. Y también ha reconocido a aquellos que, si bien no tienen que convivir rodeados de un aparato de seguridad, “sufren los constantes insultos y desplantes de los sectores radicales”.





Arantza Quiroga ha elogiado la actitud constante y diaria que mantienen las víctimas: “una ostentación, dice, llena de generosidad, valentía y serenidad que los eleva por encima de cualquier parámetro humano. Desprendimiento absoluto que no hace si no develar una grandeza individual de las víctimas. Y es que vosotros, subraya, sois el impulso fundamental que nos mantiene en pie”.

Para poner fin al terrorismo la sociedad civil está cada vez más comprometida. Todos estamos más unidos que nunca, y eso es motivo de celebración. “Pero no podemos perdernos en el triunfalismo, no mientras una sola persona siga viviendo con miedo en Euskadi, no mientras persista la sombra de la muerte. Esta es una tarea en la que debemos estar todos involucrados, mostrando compromiso. Nuestros hijos y nietos tienen que saber que por radical que sea su desacuerdo existen fronteras que no se pueden cruzar. Eso es algo que debemos interiorizar, uno a uno, todos.”

Para la Presidenta del Parlamento Vasco hay ocasiones en las que la sociedad civil y los políticos logran una total sintonía, “creo que hoy se esta dando esta circunstancia: este Parlamento al realizar hoy este acto esta haciendo bueno el mandato que depositaron en las urnas nuestros representados. Por ello, debemos felicitarnos todos por haber tomado la decisión unánime de rendir este merecido homenaje a quienes debemos tanto.”

